

# Aretxagazeta

## Herriko pilotariak Gipuzkoako Kluben Arteko txapelketan hasi dira

Herriko zenbait pilotarik dagoeneko hasi dute denboraldi berria. Joan den egubakoitzean jokatu zituzten klub arteko lehenengo partiduak.

MOTZ

6

5

4

ETA GAINERA...

Ze barri?

GAIA

Hispanidade eguna ospatuko dute gazteek /8

ELKARRIZKETA

Nahia Intxausti eta Amagoia Unanue /9

LEINTZ GATZAGA

Herria oinezkoendako egokitzen /10

ASTEKO GAIA: XIBEROA GARATZEN EGITASMOA/5 • KIROLAK: KLUB ARTEKO PILOTA TXAPELKETA/6



**GUARDIAKOFARMAZIA**

ZAPATUA, 12  
FRAILE, J. Herriko plaza, 10..... 943 79 21 99  
DOMEKA, 13  
FRAILE, J. Herriko plaza, 10..... 943 79 85 83

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

OROKORRAK	
Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarteak	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Instituta	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxo ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 79 74 58
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Saretxo	943 71 26 56
Taxi geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALTZAINGOA  
Arrasate ..... 943 79 14 39

LARRIALDIK  
SOS Delak ..... 112  
Eskualde Ospitalea ..... 943 03 53 00  
Ertzaizntza ..... 943 79 71 99  
Gurutze Gorria ..... 943 76 55 76  
Larrialdia ..... 943 46 11 11  
Suhiltzaileak (Onati) ..... 943 78 28 00

**MEZAK**

ANDRA MARIAREN ZERURATZE  
PARROKIA  
Domeketan: 12:00  
Zapatuetan: 19:30

SANTA RITA  
Domeketan: 09:00  
Zapatuetan: 8:00  
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN:

GORONAETAN  
Domeketan: 11:30

MENDIOLA  
Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

GALARTZA  
Domeketan: 12:30

**OHARRAK**

**ERROBIRA PIRAGUAN  
IBILTZERA**

Urriaren 13an, 07:30ean, irten-  
go dira Beroako autobus gel-  
tokitik Errobi ibaira pira-  
guan ibiltzera joango diren  
guztiak.

**ERRETIRATUENDAKO ESKULAN  
IKASTAROA**

Basotxo erretiratuen elkar-  
teak Eskulan ikastaroa  
antolatu du. Gura duenak  
Basotxon eman dezake  
ikastaroan parte hartzeko  
izena. Informazio gehiago,  
943 77 09 81 telefonon.

**ESKULAN IKASTAROA**

Oraindik zabalik dago Kul-  
tura Sailak antolatutako  
Eskulan ikastaroan izena  
emateko epea. Zortzi eskola  
emango dituzte (astean  
behin) ikastaro horretan.  
Izena emateko kultura  
etxera joan behar da,  
11:00etatik 13:00etara  
bitartean. Eskulan ikas-  
taroa egiteko 20 euro  
ordaindu beharko dira.  
Informazio gehiago gura  
baduzue, deitu 943 71 10 27  
telefono zenbakira.

**PAUSOKA HAUR ESKOLAREN  
INAUGURAZIOA**

Urriaren 19an, Pausoka Haur  
Eskolaren inaugurazio eki-  
taldia egingo dute. 11:00etan  
ekitaldi ofiziala egingo dute,  
12:00etan luncha izango da,  
eta azkenik, 12:30ean buru-  
handiak irtengo dira.

**LORAMENDIREN AGENDA**

**BAINIKA, PATHC WORT,  
TRAPUZKO PANPINAK, ETA  
BORDATUAK EGITEN IKASTEKO  
IKASTAROAK**

Blanka Preak urriaren  
16an hasiko ditu eskulan  
ikastaroak. Informazio  
gehiago gura izanez gero:  
943 77 09 70.

**ESKULAN IKASTAROA**

Rosa del Agilak urriaren  
15ean hasiko ditu eskulan  
ikastaroak. Informazio  
gehiago: 943 77 09 70.

**ORAINDELA 9URTE ARETXABALETAN**

**Arniches  
antzerki  
taldea herrian  
izan zen**


Ez da ohikoa Aretxabaletan  
antzerki taldeak ikustea. Hala  
ere, garai baten, zirko ikuskizu-  
nez gain, antzerki taldeak ere  
izaten ziren herrian. Orain dela  
bederatzi urte, esaterako, Madril-  
go Arniches antzerki taldea izan  
genuen bisitan. Urriaren 1etik 8ra  
bitartean izan ziren herrian.



**BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

**“Loka”**

Kili-koloa, kili-kolo egotea.  
- Mai ankiak lokia dauka.  
- Agiñ bat loka-loka daukat.  
- Baldosa mordua loka dago.



**ZORIONAGURRAK**



ESKORIATZA  
**Gorka Errasti Díaz de Gereñu**  
16an. Zorionak eta muxu  
bat, etxeko partetik.



ESKORIATZA  
**Mainer Mediavilla**  
18an. Zorionak eta muxu  
handi bat, etxeko guztien  
partetik.



ARETXABALETA  
**Kizkitza Cillaurren**  
11n, 7 urte. Zorionak eta  
muxu handi bat, etxeko  
guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Ainhoa Zabaleta**  
8an, 7 urte. Zorionak eta  
muxu handi bat, etxeko  
guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Nerea Arriola**  
12an. Zorionak eta muxu  
handi bat, lagun guztien  
partetik.




ARETXABALETA  
**Lore Martínez**  
15ean. Zorionak eta muxu  
handi bat, lagun guztien  
partetik.



ARETXABALETA  
**Lorea López**  
15ean, 12 urte. Zorionak,  
etxeko, Lideren eta  
Garaziren partetik.



ESKORIATZA  
**Irati Limón**  
6an, 3urte. Zorionak eta  
muxu handi bat, Jose Ara-  
nako lagunaren partetik.



ESKORIATZA  
**Bittor Barandiaran**  
17an, 5 urte. Zorionak,  
aitaren, amaren eta Gari-  
ren partetik.

**Zorionak**

Zorion itzazu  
lagunak eta  
senitartekoak  
ARETXAGAZETAren  
bidez!  
Ekar itzazu haiek  
argazkiak eta  
emaiezu ezusteko  
ederra! Doan!

**Mobiliario  
ARENAZA**

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

**Iber**

- ★ Loteria ★
- ✿ Paperdenda ✿
- ✱ Liburuak ✱

Otalora 2.  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 04 39



**MAPFRE**  
Aseguroak

Errekabarren, 3  
Aretxabaleta  
Tel.: 943 77 11 76

**Jauregi  
Okindegia**


Otalora, 10  
Tel.: 943 79 57 47  
ARETXABALETA

**Maritxu  
drogeria  
mertzeria**


Araba Ibilbidea, 24  
Tel.: 943 79 23 53  
ARETXABALETA




## ATREBENTZIAEZPADA/ Hispanidade Egune jai hartzekue izen biherko litzake?




**ESTER URKIA**  
langillie



**ROBERTO TAPIA**  
langillie



**ENERITZ BARTOLOMÉ**  
langillie



**ANTONIO VILLAR**  
jubilaue



**IRUNE LACALLE**  
langillie



**JABIER BELATEGI**  
langillie

Ez dakit eta, gaiñera, ez dust ardura. Guardia Zibillaren Eguna lan egitteko gogo haundixague emuten dust, baiñe Hispanidade Egunien iguel dust lan egittie edo jaiegune hartzie.

Aurten zapatue da, ezta? Neuretako, asteko eguna izengo balitz, hobeto, hola ez neuke lanik egin biherko. Ez dot ezer zelebretan. Hispanidade Egune kalendarixuen jai dala? Hobeto!

Ez dot sekule pentsau jaiegun moduen hartu edo lan egin beharko litzakeen. Berdin dust. Jai emun ezkeru, pozik hartu eta aurrera! Inportantzia txikixe dauko egun horrek neuretako.

Neuk egun horri ez dutzet inungo inportantziarik emuten. Gaiñera, jubilaunitzenetik jai danak neure modura zelebretan dittut, kalendarixuari begittu barik.

Neuk ez dot zelebretan urriaren 12xe. Jai hartuko dot, lantokixen hola erabaki dauelako, baiñe ez dot sekule zelebrau. Inportantzia txikixe eukitten daue holako egunek neuretako.

Ez dot ezer zelebretan. Hamen, Euskadin, gaiñera, ez dauko zentzurik. Edozelan be, jaiegune izetie asko estimetan dot; des kantsu egune izeten da, eta hori ona da danondako.

## TXALOAKETATXISTUAK



**TXALOAK LOREZ BETETAKO BALKOIAK** Pena da irakurleek goiko argazki hori koloretan ez ikustea. Balkoian dauden loreak gorri-gorriak dira. Gure txaloak, baina, loreen kolorearendako baino gehiago, balkoiaren itxurarendako dira. Tankera horretako balkoien jabeek jakin dezatela euren lanak miretsiak izaten direla. Balkoiez gain, kaleak ere alaitzen dituzte loredun balkoiek. /A.L.

## ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

### Abade jesuitei elkarrizketa

Juan Jose Olabe eta Gustavo Albarrán abade jesuitek Venezuelako berri eman digute.

ASTEAN BEHIN /05

### Xiberoa Garatzen Herri Plataformako kideek apirilaren hasitako egitasmoa amaitu da dagoeneko.

Xiberoa Garatzen Herri Plataformako kideek apirilaren hasitako egitasmoa amaitu da dagoeneko.

KIROLA /06

### Kluberen arteko Txapelketa

Herriko pilotariak joan den egubakoitzean hasi zuten Kluberen arteko Pilota Txapelketa.

## ASTEKODATUA

# 189,9

**EURO ORDAINDU BEHARKO DITUZTE ERRETZEN UZTEKO**

Udaleko Prebentzio Sailak erretzen uzteko ikastaroa antolatu du. Ikastaroak 250 euro balio du, baina Aretxabaletako Udalak parte hartzaile bakoitzari 60,10 euro ordainduko dizkio.

## BESTEKEESANA

**“ Zuzenean pasarte teknikoetara joan ginen, eta espero baino errazago jarri zizkigun. Elkarrizketa**

**haren ondoren, animosoago atera ginen Katmandutik, ertza jada ez zitzaigun hain ezinezkoa iruditzen. Hala ere, sekula ezin duzu kalibratu Loretanek esandakoak ze mailatan aipatzen dituen.**

**Beharbada beste batzutan baino gutxiago entrenatuta, baina hala ere, neure buruarekin gustura egoteko moduan joan nintzen. Oso motibatuta, hori bai. Eta bidean prestatzeko lanetan, motxila handiarekin eta pisuarekin ibili arren, belauak ez zidala arazorik eman ikusita, horrek ere asko animatu ninduen, ikaragarri jaso zidan moralara.**

**ALBERTO IÑURRATEGI (ZORTZI EGUN ANAPURNAREN BESORIK LUZEENEAN) Pyrenaica/\*208. zenbakia**

## HERRITARRENBERBAK/ Arantxa Jaka



*Ave Maria*

**U**da honetan ordu askoko bidai bat egitea tokatu zait autobusez. Denbora errazago pasadin pelikularen bat jartzen dute eta, batez ere, musika. Oraingoan, "udarako abestiak". Normalean, esna joatea gustatzen zait, alde batera eta bestera begira, paisaiak eta herriak ikusiaz; eta musika zalea naitenez, belarria ere erne. Baina ezin nuen sinetsi entzuten nuena. Etxera itzuli eta lagun bati modan zeuden abestiak eskatu nizkion. Banan-banan entzun nituen, letran ondo erreparatuaz. Oraingo honetan nire zalantzak uxatu ziren; bidaiari ondo entzun nuen: *Ave Maria... Dime tan sólo una palabra... Después de tus besos de Judas... A Dios le pido... Milagro...* Eta abestiaren errepikak ziran! Sinetsi ezina! (Eta, de paso, esan behar da abestiaren mezua oso pobrea dela; gainera emakumeok ez gara toki onean gelditzen). Inoiz baino gehiago gaur entzuten ditut espresio hauek apaizen eta monjen

kontua dela. Kaletik barrena noanean burla bezala askotan esaten dizkirate antzerako gauzak. A! Baina oraingoan mutil eta neska guapo batzuk esanak dira: Bisbal, Chenoa..., eta atzetik sekulako marketina dago, interes ekonomikoak..., eta kasu honetan edozer gauza baliagarria da. Hiru urtekoa haurrak ere zeinen ederki abesten duten: *Ave María, siempre serás mía!* Ez dakit gure gizartea, hain libre sentitzen den gure gizartea, manipulazio errezer honetan nola eror daiteken. Gizar-te honek ez du erlijio seinalerik behar, *estorbo* egiten dio; baina talde batzuen interesetako posible da gauza batzuk onartzea eta bultzatzea. Atal berean sartzen dut hurbilagoa zaigun Maritxu Kajoi festa. Ba al dakigu zer esan nahi duten "ateo", "agnostiko" hitzak? Hori garelako esatea modan dago, baina ez dut uste koherentea izatearena. Zer gertatzen zaigu? Ez ote da izango zerbaiten beharra daukagula eta, besterik ez bada, taktika erabiltzen dugula?

**“Ave Maria... Dime tan sólo una palabra... Después de tus besos de Judas... Eta abestiaren errepikak ziran!”**

# Aretxagazeta

Durana 11  
20550 ARETXABAETA  
Tel.: 943 79 86 21  
Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA  
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA  
Mirari Altube  
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA  
Goio Arana

PUBLIZITATEA  
Ziortza Martín

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA  
55-378-94

ISSN  
1134-2609

TIRADA  
4.100 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriluzako  
Kultura Saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Aretxabaletako  
Udala



Eskoriatzako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala





BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

## Around the world

**B**idaiatzea modan dago, eta ez udan bakarrik. Gaur egun jendea alde batetik bestera samur mugitzen da, herrialde batetik bestera, kontinente batetik bestera. Gure herrian ere asko eta asko dira munduko bazterrak ezagutzeko irrikaz abiatzen direnak. Irma Arabaolaza dugu horietako bat. Around the world izeneko abioi billetea erosi eta datozen hilabeteotan mundua ezagutzera doa. Thailandia, Australia, Zeelanda Berria, Kanada... leku horiek guztiak eta gehiago ezagutzeko aukera izango du. Ni ere gustura joango nintzateke. Hori bai dela erabakia hartu eta momentua aprobetxatzen jakitea. Gainera, bidaia horretan gure kolaboratzailea izango da, eta hamabostean behin bidaiaren berri emango digu ARETXAGAZETA.

Beste batzuek bidaia txikiagoak egiten dituzte, edo gertuago joaten dira, behintzat. Hilaren 13an, esaterako, piragua irteera izango da Errobi ibaira.

Gazteen artean bakarrik ez, jubilatuen artean ere modan dago bidaiatzea. Jubilatuen Egunean Torremolinosera bidaia zozketatu zen eta Agustin Sandovali tokatu zitzaion. Hori bai hori zorzea, jubilatuen bazkarira joan eta Torremolinosera bidaia irabazi. Ondo ibili.

M. J. Aretxaga

JUAN JOSE OLABE ETA GUSTAVO ALBARRÁN/VENEZUELAKO ABADE JESUITAK

# Aretxabaletarren eskuzabaltasunarekin gazteendako etxe bat egin dute Venezuelan

AMAGOIA LASAGABASTER

Duela hiru aste inguru, Venezuelatik etorritako bi abade jesuita izan ziren herrian. Juan Jose Olabe eta Gustavo Albarrán. Besteak beste, aretxabaletarren laguntzarekin Venezuelan egindako laguntza etxearen berri eman digute.

Zer dela eta etorri zarete Aretxabaletara?

Juan Jose Olabe: Ni familia-koak, lagunak eta herria bera ikustera etorri naiz. Venezuelan esaten dugun moduan, *a pasar unos dias sabrosos*.

Gustavo Albarrán: Ni Madril-dik nator eta, batetik, Juan Jose Olaberri bisita egin eta haren familia ezagutzera etorri naiz, eta, bestetik, horrenbeste lagundu digun herriari eskerrak ematera. Hemengo jendearen eskuzabaltasunari esker egin dugu Venezuelako auzorik pobreenetan bizi direndako San Luis Gonzaga orientazio eskola.

Gaur egun zein lan egiten duzue?

J.J.O: Nik jesuita gazteen heziketan egiten dut lan Venezuelan. Hain zuzen ere, lehenengo heziera aldian ematen ditut eskolak. 20 urterekin hasten dira ikasketak egiten jesuitak. Gehienek unibertsitateko eskolak amaitzen dituztenean etortzen dira guregana. Gaur egun, abokatuak, medikuak eta horrelakoak hasiberriak ditugu gurean.

G. A: Ni Erljio ikasketak egiten ari naiz Madrilan. Datorren urtean amaituko ditut ikasketak horiek, eta gero, berriro ere Venezuelara itzuliko naiz.

Juan Jose, gaur egun irakasle lanetan zabilta eskola baten, baina leku gogorragoak ere ezagutu dituzu horrenbeste urtean, ez da horrela?

J.J.O: Bai, hogeitau urtean Venezuela ekialdean ibili naiz lanean, herrialde osoko tokirik pobreenetan. Zona hartan Aita Velas jesuitak sortutako giza proiektu baten ibili naiz lanean. Ekimenaren leloa ere bitxia zen benetan: *Heziketa asfaltoa bukatzen*



AL



## Gazteendako San Luis Gonzaga etxea

Goiko argazkian ikusten den etxebizitza da arrisku sozialean dauden gazteak hezteko etxea. Hilabetero 100 gaztek hartzen dituzte heziera eskolak etxe horretan. Denak ere Venezuelako lekuri behartsuenetako gazteak dira.

den tokian. Horrekin dena esan da dago.

G: Juan Jose oso apala da eta ez du aipatu, baina nik esan gura dut, aretxabaletar guztiak jakin dezaten, Juan Jose inork joan gura ez duen lekuetan izan dela lanean. Venezuelako tokirik baztertuenetan, hain zuzen ere. Venezuelako abade bat langile sozial bat da, eta Juan Josek bide asko ireki ditu zona pobreetan.

Zein egoera bizi du gaur egun Venezuelak?

G. A: Venezuela herrialde pobrea da. Errealitate politiko latzak bizi izan ditu azken urteotan eta horrek asko eragin du gure egoera sozio-ekonomikoan. Orain, aurrera egiteko garai heldu zaigu, baina, betiere, gure sustraiak galdu barik. Balioei eta ohi-turei eutsi gura diegu modernitatearen trenari heltzen diogun bitartean.

Eta, besteak beste, horretarako egin duzue San Luis Gonzaga etxea?


G.A: Bai, Juan Jose Olaberri bitartez Aretxabaletako parrokiarekin harremanetan jarri eta horri esker arriskuan sozialean dauden gazteak hezteko etxe bat egin ahal izan dugu. Etxe horren izena San Luis Gonzaga da. Proiektuaren finantzaketaren %45ean aretxabaletarrek lagundu digute. Gainerakoa Euskadiko gobernuak ordaindu du.

J.J.O: San Luis Gonzaga etxean etorkizun beltza duten gazteei laguntzen diegu. Gidari lana egiten diegu. Edozelan ere, lan heziketa emateaz gainera, laguntza psikologikoa ere eskaintzen diegu.

Gustavo, zer esan gura diezu laguntza eman duten herri-tar guztiei?

G.A: Oso pozik nago aretxabaletarrek horrelako proiektu handi bati eman dioten erantzunarekin, eta horregatik eskerrak eman gura dizkiet guztiei. Gainera, tarte hau aprobetxatu gura dut, bereziki, Jose Olaberri eta Antonio Astigarraga parrokoari eskerrak emateko. Horiak koordinatu dute proiektua aurrera ateratzeko lan guztia.

**Zubia**  
oinetakoak



zapatak, zapatilak,  
gerrikoak eta poltsak

Mitarte 14 • 943 79 16 00  
ARETXABALETA  
Biteri 1 • 943 79 66 53  
ARRASATE

Jou Díaz  
Harakina

Loramendi, 1  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP.

Garbiketa  
orokorrak

Errekabarren 3- Behea  
ARETXABALETA  
Tel: 943 79 01 28

PENSOS  
SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea  
ARETXABALETA  
Tel.943 77 00 33/79 42 56



**XIBEROA GARATZEN EGITASMOA/** Herri plataformak 3.800 euro batu ditu

# Xiberoa Garatzen Egitasmoa amaitutzat eman dute

AMAGOIA LASAGABASTER


Joan den apirilean aurkeztu zuen herriko talde batek Xiberoa Garatzen Egitasmoa. Ordutik hona herritar horiek lan handia egin dute laguntza batzeko; eta hasieran jarritako helburu guztiak bete ez dituzten arren, kanpaina bukatutzat eman dute.

Udalbiltzak jarri zuen abian Zuberora garatzeko laguntza kanpaina. Aretxabaletan herritar gazte talde batek sortutako plataformak hartu zion testigua Udalbiltzari, eta egitasmo hori betetzeko, apiriletik hona ibili dira laguntza batzen, etengabe. Hasierako helburu guztiak ez dituzte bete, baina, edozelan ere, aste honetan itxi dute dirua batzeko kanpaina. Denera, 3.800 euro batu ditu Aretxabaletako Xiberoa Garatzen Herri Plataformak.

## HASIERAKO ERRONKAK

Xiberoa garatzen Herri Plataformak apirilean lanean hasi zenean helburu bi zehaztu zituen: alde batetik, aretxabaletarrei zuberotarren egoera gertutik erakustea; eta, bestetik, dirua batzea. Plataformako kide batek esan digunez, bi erronka horiek, neurri desberdinean bada ere, bete egin dituzte.

Zuberotarrek gaur egun bizi duten egoeraren berri emateko berbaldia antolatu zuten apirilean. Eta orduantxe hasi zuten laguntza batzeko kanpaina hori.



Plataformakoek txartelak saldu zituzten, eta sari bat Maritxu Biterik irabazi zuen.

Berbaldira ehunka aretxabaletar hurreratu ziren, eta plataformakoak pozik azaldu ziren herritarrek erakutsitako interesekin. Bigarren helburuak, berriz, dirua batzea, alegia, ez du horren arrakasta handirik izan. Udalbiltzak kanpaina hasieran kal-

kulatu zuen herri bakoitzean jaso beharreko ekarpena zein zen. Horren arabera, 7.500 euro batu beharko lirakeke, eta kanpaina 3.800 euro batuta amaitu dute. Edozelan ere, plataformakoak oso pozik daude, batez ere, herritarrek emandako laguntzarekin.

## TXUTXUMUTXUA




## Salda, bazkaria, dantzaldia... eta opariak!

Urtero moduan herriko erretiratuek sasoi onean daudela erakutsi zuten. Salda, txikiteoa, bazkaria... eta oraindik ere sekulako dantzak egiteko indarra izan zuten. Hori guztia joan den zapatuan egin zuten, euren omenezko egunean. Denera, 300 erretiratu batu ziren kirol etxean egindako bazkarian. Gainera, batzuek etxerako buelta opariz beteta egin zuten. Agustín Sandoval, esaterako, Torremolinosera bidaiari egiteko oparia irabazi zuen bazkalostean egin zuten zozketan./A. L.

## LABUR

### 'Easyway', erretzen uzteko ikastaro arrakastatsua, antolatu du Prebentzio Sailak

Lehenengo, Udaleko langileek probatu zuten Allen Carr-en *Easyway*, erretzen uzteko ikastaro arrakastatsua. Gero, lantokietara zabandu zuten kanpaina, eta orain, herritarrek izango dute aukera erretzen uzteko ikastaroa egiteko. Allen Carrrek azaroaren 8an eta 15ean emango ditu erretzen uzteko eskolak. Bi egun horietan 14 laguneko talde mugatuak osatuko ditu. Ikastaroak 250 euro balio du, baina zati bat Udalak finantzatu du. Interesatuak ondorengo bi asteotan eman beharko dute izena Prebentzio Sailean.



- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

## Aholkularitza

Basabe poligonoa, F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA  
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68

## DOIKALSE

### Elektroerosio lanak

Basabe Poligonoa C-1-1  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 82 44

Aretz

taberna

Markole, 5  
Tel.: 943 79 14 67  
ARETXABALETA

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK



URKULU, S.L.

Mitarte, 23  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 96 66  
Fax: 943 77 10 33

## ARTANO akaitegia



Gosariak goizeko 7:00etatik aurrera!


Herriko plaza 3. Tel.: 943 79 62 75 ARETXABALETA

## Dorleta taberna

Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8  
Aretxabaleta  
Tel. 943 79 94 15

## Arotz lanetan behar duzun guztia




AZKARATE  
AROSZTEGIA

Telleria, 19 B-0-2 B-0-3. BERGARA  
Tel.: 943 76 47 19.  
ARETXABALETA Tel.: 943 77 01 24

## ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka, 4 behean.  
Tel.: 943 76 18 93  
BERGARA





PILOTA


## Herriko pilotariak hasi dira Kluben Arteko Pilota Txapelketa jokatzen

Juniorrek, gazteek eta nagusiek jokatuko dituzte klubetako arteko pilota partiduak

AMAGOIA LASAGABASTER

Herriko zenbait pilotarik dagoeneko hasi dute oraingo denboraldia. Joan den egubakoitzean, Gipuzkoako Klubetako Arteko Pilota Txapelketa jokatzen hasi ziren. Hain zuzen ere, gazteak eta seniorrak izan ziren lehian, eskuz binaka, Iturrigorri frontoian.

Joan den egubakoitzean jokatu zituzten herriko zenbait pilotarik denboraldiko lehenengo partiduak. Gipuzkoako Klubetako Arteko Pilota Txapelketa hasi zuten, eta binakako norgehiagokan herriko sei pilotarik jokatu zuten. Gazteetan Aretxabaletako Altube-Kortabarria bikoteak 22-10 irabazi zien Erniopeko pilotariei; nagusietan, aldiz, Aretxabaletako bikote biek, hau da, Alzola-Lasagabaster eta Errasti anaiak, elkarren kontra jokatu zuten partidua. Bikote biak ondo ibili ziren, baina, beste behin ere, Errasti anaiak euren nagusitasuna erakutsi zuten frontoian eta 10-22 irabazi zuten; eta, azkenik, junior mailan Hoyonek eta Uriartek ez zuten partidurik jokatu.



Joan den egubakoitzean, partidu bi jokatu zituzten Iturrigorri frontoian.

### ASTEBURUKO PARTIDUAK

Txapelketan, Gabonetako sailkapen txanda heldu arte, behintzat, asteburu guztietan jokatuko dituzte pilota partiduak. Bihar, zapatua, junior mailako pilotariak Alzolatarrak elkarteko pilo-

tariak izango dituzte aurre; gazte mailakoek Añorgaren kontra jokatuko dute; eta, azkenik, nagusietan Alzolak eta Lasagabasterrek ere Añorgaren aurka jokatuko dute; eta Errasti anaiak, eibartarren kontra.

FUTBOLA

### Ligan lehenengo gola sartu arren, oraindik ez dute partidurik irabazi preferentekoek

Liga ez ziren batere ondo hasi Bittor Muxikaren mutilak, eta oraindik ez dute bururik altxatu. Joan den domekan sartu zuten ligan honetako lehenengo gola. Hala ere, Ekaitz Armentiak sartutako gol horrek ez zuen ezertarako balio izan; UDAko preferente mailakoek 3-1 galdu zuten Aloña Mendiren aurka. Oraingo domekan, Oiarzungo taldearen kontra neurtuko dituzte indarrak.

KIROL ETXEA

### Azkenean ere, txartel bateratua izateko proiektua datorren urtean jarriko da martxan

Aurten, urtea amaitzeko falta diren hiru hilabeteetan jarri gura zuten kiroldegiko txartel bateratua martxan. Baina, dirudienek, udal guztiak ez dira ados jarri bazkideek txartel bateratua izateko ordaindu beharreko kuotan, eta hala, oraingoan, behintzat, bertan behera geratu da proiektua. Kirol teknikariaren esanetan, datorren urtetik aurrera erabili ahal izango da txartel bateratua.

### HITZORDUAK

#### FUTBOLA

**UDA-Oiartzun**  
Preferentea.  
Domeka, 16:30. Ibarra  
**Are/Almen(b)-Urki**  
Gazteak (bigarren maila).  
Zapatua, 16:00. Ibarra.

#### PILOTA

**Aretxab.(2)-Añorga (2)**  
Juniorrak.  
Zapatuan, Iturrigorri.  
**Aretxab.(2)-Añorga (2)**  
Nagusiak.  
Egubakoitzean, Iturrigorri.

### EMAITZAK

#### FUTBOLA

**Aloña Mendi 3 UDA 1**  
Preferentea.  
**UDA 0 Kostkas 1**  
Gazteen Euskal Liga.  
**UDA 3 Urki 1**  
Bigarren mailako erregionala.  
**Antzuola 5 UDA/Almen. 2**  
Bigarren mailako gazteak.  
**UDA/Almen 1 Soraluze 4**  
Bigarren mailako gazteak.  
**UDA 1 Mutriku 1**  
Lehenengo mailako kadeteak.

#### PILOTA

**Kortabarria/Altube 22**  
Erniope 13  
Gazteak.  
**Errasti anaiak 22**  
**Alzola/Lasagabaster 10**  
Seniorrak.

## Mitarte Garai baserri-turismo etxe berria



Orain sei gela bikoitz ditugu, telebista eta guzti, eta hiruk bainugela ere badute



Lasai-lasai egoteko taberna

**Mitartegarai**

Areantza auzoa  
Aretxabaleta  
Tel. 943 79 17 51  
mitartegarai@euskalnet.net

**Batzarretarako gela ireki berria ere badaukagu!**



ERRETRATUZAHARRA

# Irabanen Elorrioko lagunak bisitan



**D**uela 50 urte inguru, Urkuluko Iraban baserrikoek Bizkai aldetik etorritako lagunak bisita jaso zuten: Elorrioko Abando, tratante aberatsa hura, eta haren morroia izan ziren domeka batez Irabanen. Jose Mari Leibarrek kontatu digunez, Urkulu inguruko basoren baten jabe ei zen Abando. Elorriokoa zen, baina ez zituen Urkuluko parajeak ondo ezagutzen, eta 1948. urteko domeka baten bere basoa zein zen ezagutzera etorri zen. Iraban baserriko jabeak, Migel Leibarrek, erakutsi zion bizkaitarrari bere basoa zein zen eta mugarriak non kokatuta zeuden.

Basoan ibilalditxoa egin eta gero, elkarrekin bazkaldu zuten Irabanen. Bazkaldu eta gero, ondoko argazkia atera zuten. Jose Mari Leibarrek esan digunez, garai hartan ez zen ikusten kamera askorik, eta, are gutxiago, baserrietan. Jose Mari Leibarrek dio berari atera zioten lehenetariko argazkia izango dela ondokoa.

Oraing, Goroetako Iraban baserri

zaharra hutsik dago. Urkuluko urtegia egin zutenean urak hartzeko zorian egon zen baserria, baina azkenean ez zen horrelakorik gertatu.

Dena dela, Iraban zaharreko bizilagunek Iraban Berrira deritzon baserria egin zuten, baina oraingo honetan Aozaratza auzoan egin zuten

baserri berria. Geroztik, Leibar familiakoak Iraban Berrian bizi dira.

Ezkerretik hasita, honakoak ageri dira: Elorrioko Abando tratantearen morroia, Jose Mari Etxaluze, Abando tratantea, Patxi Altube, Pedro Jose Leibar, Migel Leibar eta Justina Errasti, Maria Dolores Leibar besoe-

tan duela. Eta behean, berriz, Ines Leibar da neskatila txikia, Bonifacio Leibar, Jose Mari Leibar eta Asensio Leibar. Eta txakurrak, bestalde, *Xol* zuen izena.

**Argazkia:** Jose Mari Leibar

NOLAALDATUDIRENGAUZAK


## Urkuluko urak eramán zituenak

**A**ozaratza eta Goroeta artean dagoen Urkuluko urtegiak 25 urtetik gora ditu dagoeneko. Negua edo uda izan, udazkena edo udaberria izan, makina bat jende ibiltzen da berezkoa ez den ur putzua- ren inguruan. Urkuluko urtegia egiteko hainbat lursail eta hamabost baserri urpean geratu ziren; baserritar askoren bizitza eta ametsak ere urperatu ziren orduan.



≈ 1970

Zelai eta pinudiez gain, Goroetako hamar baserri eta Aozaratzako bost urpean geratu ziren, betiko.



2002

Urkuluko urtegiako urak 1.000.000m<sup>2</sup>-ko lur azalera hartu zuen. Urtegia egin zutenean inguru guztia ere urbanizatu zuen Foru Aldundiak.



### Kalitate goreneko estalketa elektrolitikoak

MIRVAT. Elkarte kooperatibo mugatua  
Aingeru ibiltokia 41  
ESKORIATZA  
943 71 45 06 Faxa: 943 71 50 05





# Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2002ko urriaren 11 / 96. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebbarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99



Kontzertuez gain, beste era bateko ekitaldiak ere bultzatu nahi ditu Gazte Asanbladak aurrerantzean.

## Gazteek Hispanitatearen Eguna ospatuko dute bihar

AINTZANE GARDOKI

**Zezen-plazarik ere ez da falta izango bihar Eskoriatzan. Herriko hainbat taberna eta plaza inguruak ere Espainiako banderekin josita egongo dira. Musika, tapa eta ardo espainiarrak ere dastatu ahal izango dira eta triki-poteoa beharrean, izango da bestelakorik.**

Duela ia urtebete hartu zuen, Udalaren eskutik, Eskoriatzako Gazte Asanbladak orain gaztetxe bihurtu duen lokala. Makinatxo bat ordu sartu dituzte lokala egokitzen eta txukuntzen. Bihar, zapatua, eta Gazte Asanbladako kideek esan digutenez, zezen-plaza bilakatuko da euren lokala. "Urriaren 12a, ganoraz, egunari dagokion moduan ospatu nahi dugu aurten", esan digu Aritz Oianguren. Eguerdian hasiko da festa gaztetxetik egingo duten etxafuegoen jaurtiketarekin. Gero, paella-jana egingo dute Gernika plazan. Espainiako ardoak eta tapak ere ez dira falta izango eta goizetik herriko tabernetan eta plazan Espainiako

banderak jarriko dituzte herriko gazteek. "Bizi dugun egoeraren aurrean inork ez dezala jai hau probokaziotzat jo. Ironiaz betetako jaia da. Espainiako jai bat da, ezta? Ba izan gaitezen kontziente. Aurten zapatua da, baina egun

*"Urriaren 12a, ganoraz, egunari dagokion moduan ospatu nahi dugu aurten"*

*"Kontzertuez gain, beste era bateko ekintzak ere antolatu nahi ditugu gaztetxean"*

hori jai hartu gura badugu ospa dezagun jaia espainiarren moduan. Baina kontuz, ez da Espainiaren kontrako eguna, hemen, Euskal Herrian, jai hori ospatzearen kontrakoa baizik", gaineratu du Aritzek.

Jai giroan eguna pasatzea dute helburu bakarra herriko gazteek. "Herritarra beti-betiko ekintzekin aspertuta dago, horregatik jo dugu era honetako jaia egitera, ea jendea animatzen den. Gero bai, iluntzean, 20:00etan, *Jai arrotzei intsumisioa* lelopean kale bilkura izango da", esan digu Aritz Oianguren. Jaia amaitzeko, berriz, The Jukebox eta Honky Tonks taldeek kontzertua eskainiko dute, gaztetxean, 22:00etan.

### EKINTZAK ANTOLATU GURAN

Herriko gazteen esanetan, bestalde, gaztetxearen inguruan dinamika bizia sortu nahi dute, "hau da, hilero egitaraua osatzea daukagu helburu. Kontzertuez gainera, beste era bateko ekitaldiak ere bultzatu nahi ditugu. Eta herriko gazte guztiei eta talde guztiei ere zabalik gaude", esan digu Aritzek.

## LABUR

### Iragana eta geroa ezagutzeko Eskoriatza Herria Ikerketa Beka plazaratu du Udalak

Eskoriatzako Udalak, herriaren iraganaz, orainaz eta etorkizunaz arduratuta, Eskoriatza Herria Ikerketa Beka plazaratu du. Bekaren helburua da Eskoriatzako udaletxeen historia ezagutzea eta ezagutaraztea. Lan hori egiteko interesa duten guztiek urriaren 14tik 25era artean izango dute izena emateko aukera, kultura etxean. Lana egiteko Udalak emango duen laguntza 3.000 euro izango da, eta beka-dunak lau hilabete izango ditu lana aurkezteko.

### Joseba Iñurrategiren mutilek indartsu ekin diote Kluben Arteko Pilota Txapelketari

Joan den egubakoitzean, herriko pilotariek emaitza onekin ekin zioten Gipuzkoako Kluben Arteko Pilota Txapelketari. Eskuz banaka Abasolok 22-15 irabazi zion Zumarragako Etxanizi. Añpek eta Errartek, berriz, 22-8 hartu zituzten mendean Ilunpe klubeko pilotariak, Azpeitian. Gaur, egubakoitza, seniorrek bakarka eta gazteek binaka Usurbilgo pilotariak izango dituzte aurkari. Hamabi pilotari federatu ditu Joseba Iñurrategi entrenatzaileak.



### Giro ona eta jende ugari festan

Joan den domekan, eguraldi zoragarria lagun izan zutela, Eskoriatzako erretiratuek euren eguna ospatu zuten. Udalak gonbidatuta, 200 erretiratu elkartu ziren jai giroan. Meza entzun, bazkari ederra egin eta dantza egiteko aukerari ere ez zioten ukorik egin herriko nagusiek. Argazkiko lagunek orain dantza handirik egiten ez badute ere, lehen asko egindakoak direla eta, batez ere, emakume gazteei dantza asko eragindakoak direla jakinarazi ziguten. Benidormerako bidaia, berriz, Ines Igarzari egokitu zitzaion. Bidai on izan! /A.G.



**NAHIA INTXAUSTI ETA AMAGOIA UNANUE/'KOOPERATIBAK ETA EUSKARA' LIBURUAREN EGILEAK**

**“Kooperatibak eta euskarak elkar sendotu, indartu eta elikatu behar dute”**

AINZANE GARDOKI

**Nahia Inxaustik eta Amagoia Unanuek Humanitate Enpresa ikasketak egin dituzte Eskoriatzan. Ikasketa amaierako proiektuan kooperatibak eta euskara hartu dituzte oinarri. Eguenean, egindako lana liburu formatuan kaleratuko dute.**

**Kooperatibak eta euskara aukeratu dituzue zuen proiektua egiteko.**

Lan horretan sakontzeko aukera eman ziguten HUHEZIn. 2001eko ekainean hasi ginen proiektua egiten. Kooperatibetan euskarak izan duen lekua zenbatekoa den jasotzea izan dugu helburu. Uda aurretik proiektua aurkeztu dugu, eta jasotakoak zabalteko asmoz, *Kooperatibak eta euskara. Historia eta aro berria baten oinarria* liburua kaleratuko dugu urriaren 17an, Arrasateko Amaia Udal Antzokian.

**Zer jasotzen du liburu horrek?**

Lau arlotan banatu dugu: Arizmendiarraren ibilbide linguistikoa zein izan zen lantzen da lehenik; euskararen ikuspuntutik kooperatibaren historia egiten da bigarren zatian; hirugarrenik, 90eko hamarkada ezkerko euskara garatzeko sortu diren plangintza berrien ingurukoak jaso ditugu; eta, amaitzeko, euskararen eta kooperatibaren arteko harremana bultzatu eta elkar elikatzeko



Á.G.

*“Urtebete eman dugu datuak batu eta lana osatzen. Liburua lau arlotan banatu dugu”*

*“Kooperatibak eta euskarak, batak bestea sendotu beharra du aurrerantzean ere”*

beharrak ere mintzatzen gara liburuaren azken zatian.

**Zenbateko lekua du euskarak, hortaz, kooperatibetan?**

Arrasateko esperientzia kooperatiboa oinarri hartuta, gu euskararen eta euskalduntze prozesuaren alde lan egin duen jende askorekin batu gara. Batzuen iritziz, kooperatibetan euskarak ez du merezi duen lekurik eduki eta beste batzuen iritziz, berriz, asko egin da euskararen alde. Egindakoa jaso dugu guk gure lanean; besteak beste, 80ko hamarkadan, Ularco taldeko 600 lagunek hartu zituzten euskarako eskolak. Ikastolen sorreran ere Euskadiko Kutzak laguntza handia eman zuen, eta ibarreko kasuan, hezkuntza euskalduntzeko kooperatibetan babesa ezinbestekoa izan da.

**Lana egin eta gero, zer ondorio atera duzue?**

Prozesua finkatuz badoa ere, hemendik aurrera ere kooperatibak eta euskarak, batak bestea indartu eta sendotu beharra du.

**Nori zuzenduta dago liburua?**

2.000 ale euskaraz eta beste 1.000 gaztelaniaz argitaratuko ditugu. Datorren egunean egingo den liburuaren aurkezpen ekitaldian doan banatuko dira, kooperatibetan ere eskura izango dira eta unibertsitatean bertan ere izango ditugu. Datorren egunean, 17:30ean, Arrasateko Amaia antzokira denok zaudete gonbidatuta; ezuste bat baino gehiago izango da.

**TELEFONOJAKINGARRIAK**

**ESKORIATZA**

Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

**BESTELAKOAK**

Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
RENFE (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

**OHARRAK**

**IPUIN KONTAKETA**

Martitzenean, bost eta bederatzi urte bitarteko umeendako ipuin kontaketa izango da, 18:00etan, kultura etxean. Gurasoak ezin izango dira aretora sartu.

**'PALABRISMOS' ANTZEZLANA**

Urriaren 18an, Ramon Bareak zuzendutako *Palabrismos* lana antzeztuko dute Paco Sagarzazu, Begoña Bilbao Esther Velasco eta Josetxo Fernández de Ortega aktoreek. HUHEZIKo areto nagusian izango da, 22:30ean.

**AXTROKIRENAGENDA**

**GRAFOLOGIA IKASTARO**

Martitzenean hasi zen ikastaroa. Beste herri batzuetan arrakasta handia izan badu ere ikastaro honek, gurean, zortzi lagunek hartuko dute parte, elkarteak espero baino jende gutxiago animatu baita.

**LABUR**

**Hilaren 19an abian jarriko dute herriko gazteendako Gaztekantoi Programa**

Udalaren eskutik, Gaztekantoi Programak urriaren 19an irekiko ditu ateak berriro 13-16 urte bitarteko gazteentzako. Duela urte pare bat udako aisialdi eskaintza gisa hasi zen proiektuak 2002ko udaberrian formatua aldatu, eta zapatuetan eta domeketan ateak ireki zituen.

Herriko gazteen artean proiektuak izan duen erantzun ona ikusita, Udalak Gaztekantoi berriro abian jartzea erabaki du, abenduaren 29ra arte. Zapatuetan, 17:00etatik 21:00etara eta domeketan, 17:00etatik 20:00etara aisialdiaz disfrutatzeke aukera izango dute gaztetxoek.

**Herriko gaixo psikiko eta fisikoek irteera egingo dute bihar Donostiara eta Azkoitira**

Parrokiako Osasun Pastoraltzak antolatuta, herriko gaixo psikiko eta fisikoek irteera egingo dute bihar, zapatua. Zortzi gaixo eta beste lau laguntzaile Donostiara joango dira, autobusez. Han, Txutxu tren hartu eta Donostia bisitatuko dute. “Eguerdarako Azkoitira joango gara. Lehen, udale-

kuak egiten genituen zenbait herritako gaixoekin. Hura amaitu zen, baina, noizean behin, eta batez ere, azkoitiar eta azpeitiarrerekin batzen gara”, esan digu Maritxu Alegriak, pastoraltzako kideak. Azkoitian bazkaldu ondoren, Zumaiara joango dira, arratsalde-pasa.




- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak

Aingeru Ibiltoki 3  
Tel.: 943 71 31 29 Eskoriatza 20540



**bedardenda**

Tfnoa.: 943 71 43 27  
ESKORIATZA



*Gustora egoteko!*

Intxaurtxueta 8  
ESKORIATZA  
943 71 40 63

**AZKOAGA**  
ESTANKOA

*Zure*  
*Zerbitzura*




# Herria oinezkoendako egokitze aldera hainbat pauso eman ditu Udalak azkeneko urteotan

AINTZANE GARDOKI

San Ignazio kalea 1999a ezkeroranzko bakarrekoa da; Markole plaza autoetatik babesteko tramankuluak jarri zituen Udalak; frontoi azpiko aparkalekuak zozketatu zituen gero. Orain, berriz, lorontziak jarri ditu herriko hainbat lekutan.

Horiek guztiak eta lehenago egin diren beste batzuk eta oraindik ere egingo diren beste batzuk 1996an herri batzar baten hartutako erabakien artean kokatu behar dira. Herria oinezkoendako egokitzeko helburuarekin, batzar hartan hainbat pauso ematen hasi behar zirela erabaki zuten partaideek. Udalarekin hartu-emanetan hasteko hiru ordezkari izendatu zituen herriak: Eduardo Alonso, David Fernández eta Joxerra Agirreurreta; haiek hasi ziren lanean.

1998an, Udalak bere egin zituen herri batzarrak proposatutakoak. "Herri atseginagoa, ederragoa, lasaiagoa egitea zegoen guztien buruan; kaleak kale eta espaloiak espaloi izatea", esan digu Ga-



Batetik, lorontziak eta bestetik, badenak jarri ditu Udalak -guraso elkarteak horrela eskatuta-, autoak herritik astiroago pasa daitezten.

tzagako alkateak. Markole plaza autoetatik babestea, Ostatu inguru eta iturria -monumentu his-

toriko izendatutakoa- autoetatik babestu gura ditugu. Aparkalekuak egin dira, frontoi azpikoei

behar zuten irtenbidea eman zitzaien, eta abar. Eta orain, lorontziak etorri dira, eta berriak


ere helduko dira; herria oinezkoendako egokitzea da helburua," dio Agirreurretak.

## ATREBENTZIAEZPADA/ Herrian badenak eta lorontziak jarri dituzte; zer deritzozu?



**EGUZKIÑE ALBERDI**  
langilea

Badenak jartzea ondo dago, baina txikiegiak dira, autoak sumatu ere ez ditu egiten-eta. Lorontziak, berriz, politak dira eta aparkalekuak non dauden ikasteko garaia badugu guztiok.



**ARKAITZ SASIAIN**  
langilea

Berria naiz herrian. Badenak ez dute funtzioa gano-raz betetzen duten itxurarik. Lorontziak politak dira. Nori egingo dio ba kalte? Hemen aparkatzeko arazok baditugu, jai daukagu.




**BEGOÑA PLAZAOLA**  
langilea

Gidariok askotan arduragabe samarrak izaten gara; badenak ondo daude. Lorontziak ere politak dira. Nik negozioa dut eta... Dena dela, autoarekin komodoegiak bihurtu gara.




**J.L. ZABALA**  
langilea

Pentsatu gura dut autoak ez direla abiada handian pasatuko, hortaz, ez diet funtziorik ikusten badenei. Lorontziek herria edertzen dute, eta nahiko aparkaleku dago Gatzagan.



**VICTORIA DÍAZ**  
erretiratua

Ez dut uste orain autoak abiada txikiagoan ibiltzen direnik. Lorontziak, bestalde, politak dira eta ez didate inolako lanik ematen. Errespetatzen badituzte, oso ondo daude.



**GURUTZE ORBEGOZO**  
langilea

Autoz bi aldiz pasatuz gero, jakina da hurrengoan galgatu beharrik ere ez dela izango. Lorontziek herria janzen eta dotoretzen dute. Aparkalekuak badakigu non dauden.

**CIPRI'S**  
**PUB**



Aranburuzabala 8  
ESKORIATZA

**NAIRA**  
Taberna

Aranburuzabala 16  
Eskoriatza. 943 71 46 71

**Calderería**  
**Cantera, S.L.**  
ALUMINIOAK

Zurgintza alumioa erabilia

Aingeruardakoa ibilbidea z/g  
T. 943 71 49 11 F. 943 71 44 21  
ESKORIATZA



# fordfocus

TDdi 90ZP, 3ate

## SCRATCH

Euskadirako serie mugatua



- aurreko eta atzeko faldoia
- erradiadore aurreko sareta
- hagunak
- lainotarako interruptorea

Erosteke, erabili

*Multi  
Opción*

**14.390€tik \***

finantzaketa kuota erakargarriak

Focus gasolina gama 11.000€tik eta diesela 12.000€tik

gozatzeko pentsatuak,  
irauteko eginak



Salneurri gomendatua. Garraioa, BEZa, matrikulazio zerga eta kontseziarioaren ekarpena barne. Prever plana barne. Hagunak ez dira argazkiko modeloorenak.

## MUGARRI AUTOAK

Araba Etorbidea z/g


ARRASATE

Tel.: 943 797 564






Aukera onenak.  
Ile apainena.



• Errekabarren 20, behea  
ARETXABALETZA  
• 943 79 80 90

- **Ile apaindegi mistoa**
- **Luzatzeak**
- **Makillajea**
- **Edertasun tratamenduak**
- **Solariuma**




• Aranburuzabala 30  
ESKORIATZA  
• 943 71 30 31

- **Ile apaindegi mistoa**
- **Luzatzeak**
- **Makillajea**
- **Solariuma**



• Loramendi 11  
ARETXABALETZA  
• 943 79 90 79

- **Ile apaindegi mistoa**
- **Luzatzeak**
- **Estetika zerbitzua**
- **Solarium bertikala**



• Intxartxueta 6  
ESKORIATZA  
• 943 71 53 11

- **Ile apaindegi mistoa**
- **Kalitate gorena**
- **Bezeroarenganako arreta zaindua**



• Sarasate 1, behea  
ARETXABALETZA  
• 943 79 59 05

- **Ile apaindegi mistoa**
- **Makillajea**
- **Era guztietako ile-biltzeak**



• Olazar auzoa 9  
ESKORIATZA  
• 943 71 50 42

- **Ile apaindegi mistoa**
- **Ezkontzetarako ile-biltzeak**



• Gorbea 2  
ARETXABALETZA  
• 943 77 09 44

- **Mistoa**
- **Ezkontzetarako orrazkerak eta makillajea**
- **Luzatzeak buruko leku hautatuetan**
- **Manikura**